Beasaingo Udala

Beasaingo Udala
Zbk./ Nº 2024-1363
Data /Fecha 2024/04/15 12:50
Irteera/ Salida

Cruz Roja
Gurutze Gorria

| ESP. KODEA. CÓD. EXP. | 2024BIBO0003 |
|---|---|
| **ESPEDIENTEA** EXPEDIENTE | **ESPEDIENTE POLTSA: ONGIZATE SAILA** BOLSA DE EXPEDIENTES BIENESTAR SOCIAL |
| **TITULARRA** TITULAR | BEASAINGO UDALA |
| **TOKIA** LUGAR | BEASAIN |

| | |
|---|---|
| **BEASAINGO UDALAREN ETA GOIERRIKO GURUTZE GORRIAREN ARTEKO HITZARMENA, BEASAINGO IGARTZA OLETA 10 BEHEKO UDAL JABETZAKO LOKALAREN ERABILERA LAGATZEKO.** | **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y CRUZ ROJA DE GOIERRI, PARA LA CESIÓN DE USO DEL LOCAL PROPIEDAD MUNICIPAL DE IGARTZA OLETA 10 BAJO DE BEASAIN .** |
| Beasain, 2024ko otsailaren 23a | Beasain, 23 de febrero de 2024 |
| **BILDURIK** | **REUNIDOS** |
| Alde batetik, Leire Artola Ugalde anderea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NAN zenbakiduna, **BEASAINGO UDALAREN** ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena. | De una parte, Doña Leire Artola Ugalde, Alcaldesa Presidenta del Ayuntamiento de Beasain con D.N.I. nº35779121E, en representación del **AYUNTAMIENTO DE BEASAIN**, CIF P2002100B, con domicilio a efectos del presente convenio, en la calle San Martin Plaza, nº1, CP 20.200 de Beasain, actuando conforme a las atribuciones que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/85, reguladora de las bases del régimen local, interviene con capacidad plena para la firma del presente convenio. |
| Bestetik, Juan Mari Urruzuno Etxeberria jauna (NAN: 15977323M), adinez nagusia, ondorio horietarako helbidea Zorroaga Gainean duena (41-20014 Donostia), Gipuzkoako Gurutze Gorriko idazkari gisa. Egintza honetarako ahalmena du "Espainiako Gurutze Gorriaren" erregelamendu orokor | De otra parte, Don Juan Mari Urruzuno Etxeberria con DNI 15977323M, mayor de edad, con domicilio a estos efectos en Alto de Zorroaga 41-20014 Donostia-San Sebastián, en calidad de secretario de Cruz Roja en Gipuzkoa, desde el 3 de junio de 2023. Se encuentra facultado para este acto mediante el reglamento |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

| | |
|---|---|
| organikoaren bidez. Protokolizazio-akta hori 2022ko azaroaren 22ko eskritura publikoan egin zen, 4.028 protokolo-zenbakiarekin, Madrilgo Ignacio Manrique Plaza notarioaren aurrean. | general orgánico de "Cruz Roja Española", acta de protocolización otorgado en escritura pública de 22 de noviembre de 2022, nº de protocolo 4.028, ante el notario de Madrid Ignacio Manrique Plaza. |
| **AURREKARIAK** | **ANTECEDENTES** |
| I.- 1995-05-17. Gobernu Batzordearen erabakia, Gurutze Gorriaren esku Urbialde plazan dagoen 228 metro karratu dituen lokal bat jartzekoa, erakundeak bertan egoitza soziala finka zezan. 1995-05-26an, alderdiek hitzarmen bat sinatu zuten, lokala 20 urtez lagatzeko. | I.- 17-05-1995. Acuerdo de la Comisión de Gobierno de poner a disposición de la Cruz Roja un local de 228 metros cuadrados sito en la plaza Urbialde, para que la entidad fijara en él su sede social. Con fecha 26-05-1995 ambas partes suscriben un convenio en el que se establece que la cesión del local es por plazo de 20 años. |
| II.- 1999-01-20. Gobernu Batzordearen erabakia, aldez aurretik Gurutze Gorriak eskatuta, Urbialde plazako beheko solairuan dagoen lokal bat erabiltzeko baimena emateari buruzkoa, prestakuntza-ikastaroak emateko. Bi alderdiek 1999-02-11n hitzarmen bat sinatu zuten lokalaren lagapena lau urterako dela ezartzen duena, eta isilbidez luza daitekeela. | II.- 20-01-1999. Acuerdo de la Comisión de Gobierno, previa solicitud de Cruz Roja, de cesión de uso de local sito en Urbialde plaza, bajo, para impartir cursos de formación. Con fecha 11-02-1999 ambas partes suscriben un convenio en el que se establece que la cesión del local es por cuatro años, prorrogables tácitamente. |
| III.- Bi hitzarmen horiek indarrean dauden arren, Gurutze Gorriak kokapena aldatu behar du, irisgarritasuna hobetzeko eta prestakuntza-eskaintza handitu ahal izateko. | III.- Aun estando en vigor ambos convenios, Cruz Roja precisa cambiar su ubicación para mejorar su accesibilidad y para poder ampliar su oferta formativa. |
| IV.- 2013-12-20. Tokiko Gobernu Batzordearen erabakia, Igartza Oleta kaleko 10. zenbakian dagoen lokalaren erabilera lagatzekoa, Gurutze Gorriaren egoitza soziala bertan kokatzeko. 2014-01-14an, bi alderdiek hitzarmen berri bat sinatu zuten, eta honako hau adostu zuten:<br>- I. eta II. paragrafoetan aipatutako hitzarmenak indarrik gabe uztea.<br>- Gurutze Gorriari lagatzea Igartza Oleta kaleko 10. zenbakian dagoen lokalaren | IV.- 20-12-2013. Acuerdo de la Comisión de Gobierno Local de cesión de uso del local situado en el nº 10 de la calle Igartza Oleta, para ubicar en él la sede social de Cruz Roja. Con fecha 14-01-2014 ambas partes suscriben un nuevo convenio en el que se acuerda:<br>- Dejar sin efecto los convenios citados en los apartados I y II.<br>- Ceder a Cruz Roja el uso del local sito en el nº 10 de la calle Igartza Oleta por un período de 10 años, y la con- |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

Beasaingo Udala

Cruz Roja
Gurutze Gorria

| | |
|---|---|
| erabilera, 10 urterako, eta II. eta II. bis eranskinetan zerrendatutako zerbitzuen kontratazioa. | tratación de los servicios relacionados en los anexos II y II Bis. |
| V.- 2019-05-23. Tokiko Gobernu Batzordearen erabakia, Gurutze Gorriarekin sinatutako hitzarmenaren II. eta II. Bis eranskinetan zerrendatutako zerbitzuak kontratatzeari buruzko hitzarmena amaitutzat ematen duena. | V.- 23-05-2019. Acuerdo de la Comisión de Gobierno Local de dar por finalizado el convenio en lo relativo a la contratación de servicios relacionados en los anexos II y II Bis del convenio suscrito con Cruz Roja. |
| VI.- 2024-01-13. Amaitu da Beasaingo Udalaren eta Goierriko Gurutze Gorriaren arteko hitzarmena. Elkarrekiko interesa dago hainbat jarduera-eremutan koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko, biztanleriaren hainbat sektoreri arreta eraginkorragoa emateko. | VI.- 13-01-2024. Finaliza el convenio entre el Ayuntamiento de Beasain y la Cruz Roja de Goierri. Existe el interés mutuo de coordinarse y colaborar en diversos ámbitos de actuación para hacer más eficaz la atención a distintos sectores de la población. |
| VII. Gurutze Gorriak, 2023-2026 Dokumentu Estrategikoan islatutako bere misioaren arabera, nazio eta nazioarte mailan kalteberatasun-egoeran dauden pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko konpromisoa du, ekintza integratuen bidez, funtsean boluntarioek eginak eta gizartearen parte-hartze eta lurralde-presentzia zabalarekin. Hori guztia printzipio hauen pean: Gizatasuna, Inpartzialtasuna, Neutraltasuna, Independentzia, Borondatezko Izaera, Batasuna eta Unibertsaltasuna.<br><br>Hori guztia martxoaren 1eko 415/1996 Errege Dekretuaren babesean eta Errege Dekretu hori Espainiako Gurutze Gorria antolatzeko arauak ezartzen dituen urriaren 11ko 2219/1996 Errege Dekretuaren babesean. | VII. Cruz Roja, conforme a su misión reflejada en el Documento Estratégico 2023-2026, tiene el compromiso de estar cada vez más cerca de las personas en situación de vulnerabilidad en los ámbitos nacional e internacional, a través de acciones integradas, realizadas esencialmente por voluntariado y con una amplia participación social y presencia territorial. Todo esto, bajo los principios de Humanidad, Imparcialidad, Neutralidad, Independencia, Carácter Voluntario, Unidad y Universalidad.<br><br>Todo ello al amparo del Real Decreto 415/1996 de 1 de marzo, y su modificación en el Real Decreto 2219/1996 de 11 de octubre, por los que se establecen las normas de ordenación de la Cruz Roja Española. |
| VIII. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1) eta 14) artikuluetan, udalerriei ahalmena ematen die:<br>- Babes zibila, larrialdiak, prebentzioa eta suteak itzaltzea antolatzea eta kudeatzea. | VIII. La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 17,1) y 14) faculta a los municipios para:<br>- Ordenar y gestionar la protección civil, emergencias, prevención y extinción de incendios. |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

| | |
|---|---|
| - Diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan ordenatzea, programatzea eta kudeatzea.<br><br>Esan daiteke, zalantzarik gabe, hitzarmena formalizatzea interes publikokoa dela, Goierriko biztanleen onerako delako. | - Ordenar, programar y gestionar en materia de garantía de ingresos e inclusión social.<br><br>Se puede afirmar, sin duda, que la formalización del convenio es de interés público porque redunda en beneficio de los habitantes del Goierri. |
| Ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortzen diote, eta lankidetza-hitzarmen hau prestatzen dute honako klausula hauen arabera:<br><br>ESTIPULAZIOAK | En consecuencia, reconociéndose ambas partes mutua capacidad para contratar y obligarse, elaboran el presente convenio de colaboración de acuerdo a las siguientes,<br><br>ESTIPULACIONES |
| **<u>Lehena</u>**. Xedea: Hitzarmen hau sinatuz, Udalak berretsi egiten du Beasaingo Igartza Oleta 10eko beheko lokalaren erabilera GOIERRIKO GURUTZE GORRIARI lagatzen zaiola, bere helburu soziala gauzatu ahal izan dezan. | **<u>Primera</u>**. <u>Objeto</u>: Mediante la firma del presente convenio el Ayuntamiento se reafirma en la cesión del uso del local de Igartza Oleta 10 bajo de Beasain a CRUZ ROJA DE GOIERRI, para que pueda materializar su objeto social. |
| **<u>Bigarrena</u>**. <u>Beasaingo Udalaren betebeharrak</u>:<br><br>1.- GOIERRIKO GURUTZE GORRIAri eskaintzen jarraitzea Beasaingo Igartza Oleta 10. zenbakiko beheko solairuaren erabilera, adierazitako helburura bideratzeko.<br><br>2.- Lokalaren erabilera, dohainik lagatzen da eta Udala arduratuko da hura mantentzeaz, argiaren, uraren eta gasa naturalaren hornidurak ordaintzeaz. | **<u>Segunda</u>**. <u>Obligaciones del Ayuntamiento de Beasain</u>:<br><br>1.- Ceder a CRUZ ROJA DE GOIERRI el uso del local de Igartza Oleta , 10 bajo de Beasain para destinarlo al fin indicado.<br><br>2.- La cesión de uso del local, se efectúa de manera gratuita y será el Ayuntamiento quien se encargue, del pago de los suministros de luz, agua y gas natural. |
| **<u>Hirugarrena</u>**. <u>Goierriko Gurutze Gorriaren betebeharrak.</u><br><br>1.- Lokala lagatako xederako erabiltzea.<br><br>2.- Lokala baldintza egokietan mantentzea eta garbiketa-gastuak bere gain hartzea. | **<u>Tercera.</u>** <u>Obligaciones de Cruz Roja de Goierri</u><br><br>1.- Destinar el local para el fin para el que se ha cedido.<br><br>2.- Mantener en condiciones adecuadas el local y asumir los gastos de limpieza del mismo. |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

| | |
|---|---|
| 3.- Behar den bulegoko materiala eta ekipoak ere Goierriko Gurutze Gorriaren kontura izango da.<br><br>4.- Lokalean akatsik edo gertakaririk izanez gero, udalari jakinaraztea, ahalik eta lasterren konpondu ahal izateko. | 3.- También será de cuenta de Cruz Roja de Goierri, el material de oficina y equipos necesarios.<br><br>4.- Comunicar al Ayuntamiento cualquier deficiencia o incidencia que pudiera presentarse en el local, a fin de que se proceda a reparar a la mayor brevedad. |
| 5.-Goierriko Gurutze Gorriak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena), bai elkartearen baitan zein bere helburu soziala egikaritzean ere. | 5.-Cruz Roja de Goierri tendrá en cuenta los criterios de igualdad (Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres), tanto en su seno como en la ejecución de su objeto social. |
| **Laugarrena**. Iraupen-epea:<br><br>Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.<br><br>Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo hitzarmena azkentzea. | **Cuarta**. Plazo de duración:<br><br>La duración del convenio será de cuatro años a contar del día siguiente al de su firma.<br><br>En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un período de hasta cuatro años adicionales o su extinción. |
| **Bosgarrena** Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak:<br><br>Hitzarmenaren eta alderdi sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, Batzorde bat eratuko da. Kide hauek osatuko dute:<br><br>- Udal-erakundearen aldetik, Herritar arloaren ardura duen zinegotzi delegatuak eta bere iritziaren arabera | **Quinta** Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control:<br><br>Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes, así como para resolver las dudas que puedan surgir en la interpretación del mismo, se constituirá una Comisión compuesta por los siguientes miembros:<br><br>- Por parte de la entidad municipal, la concejal delegada del área de Ciudada- |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

Beasaingo Udala

Cruz Roja
Gurutze Gorria

| | |
|---|---|
| behar diren udal teknikoak.<br><br>- Goierriko Gurutze Gorriaren aldetik, erakundeak izendatzen duen ordezkaria. | nía y técnicos municipales que ésta considere conveniente.<br><br>- Por parte de Cruz Roja de Goierri, representante que designe la entidad. |
| **Seigarrena**. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:<br><br>Sinatzaileren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, ez-betetzea egin duen alderdiari jakinaraziko zaio, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak eta konpromisoak.<br><br>Ezarritako epea igarotakoan, ez-betetzeak jarraitzen badu, hitzarmena suntsiarazi egingo da. | **Sexta**. Consecuencias del incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos:<br><br>En caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguno de los firmantes, se dará traslado a la parte incumplidora para que, en un plazo determinado, cumpla con las obligaciones y compromisos que se consideren incumplidos.<br><br>Transcurrido el plazo establecido, si persistiera el incumplimiento, el convenio quedará resuelto. |
| **Zazpigarrena**. Hitzarmena suntsiaraztea:<br><br>1- Epea amaitzen denean.<br><br>2- Bi alderdiek berariaz hala erabakitzen dutenean.<br><br>3.- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzea.<br><br>4.- Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzen duen ebazpen judiziala.<br><br>Hitzarmenaren helburuak bi aldeentzat onargarriak diren baldintzetan bete direla ulertuko da.<br><br>Jarduketak gauzatze-prozesuan badaude, alderdiek, jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordeak proposatuta, abian diren jarduketen jarraipena eta amaiera adostu ahal izango dute, eta epe luzaezina ezarriko dute amaitzeko. | **Séptima.** Resolución del Convenio:<br><br>1- Al vencimiento del plazo.<br><br>2- Cuando así lo acuerden expresamente ambas partes.<br><br>3- Incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes.<br><br>4.- Resolución judicial declarando la nulidad del convenio.<br><br>El cumplimiento de los objetivos del convenio se entenderá realizado en las condiciones que sean admisibles para ambas partes.<br><br>Si hubiera actuaciones en proceso de ejecución, las partes, a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control, podrán acordar el seguimiento y finalización de las actuaciones en curso, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización. |
| **Zortzigarrena**. Hitzarmenaren izaera eta | **Octava**. Naturaleza del convenio y ju- |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

Beasaingo Udala

Cruz Roja
Gurutze Gorria

| | |
|---|---|
| jurisdikzio aplikagarria:<br><br>Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskuduna.<br><br>Hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondorioei buruz sor daitezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira, eta, halakorik ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena izango da. | risdicción aplicable:<br><br>De conformidad con el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, la naturaleza jurídica del presente convenio es administrativa y, en consecuencia, es la jurisdicción contencioso-administrativa la competente.<br><br>Los conflictos que pudieran plantearse en relación con las interpretaciones, modificaciones, resoluciones y consecuencias que pudieran derivarse de la aplicación del presente Convenio se resolverán por acuerdo entre las partes, siendo en su defecto competencia de la jurisdicción contencioso-administrativa. |
| Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean. | Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman los comparecientes el presente convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento. |
| Goierriko Gurutze Gorria<br><br>15977323M JUAN MARIA URRUZUNO (R: Q2866001G)<br>Firmado digitalmente por 15977323M JUAN MARIA URRUZUNO (R: Q2866001G)<br>Fecha: 2024.05.29 09:54:57 +02'00'<br><br>Juan Mari Urruzuno Etxeberria<br>Idazkaria | Beasaingo Udala<br><br>Mariola Pascual Paredes<br>Alkateak 2023-7-3an emandako 2023/1116 Ebazpenak baimenduta |

ESKU958b00c0-fc68-4ad4-b49f-1e4a9bb2e297

Beasaingo Udala

Cruz Roja
Gurutze Gorria